



LH-3. MAILA  
3. UNITATE DIDAKTIKOA  
"Berdintasuna"



**BERDINTASUNA-3. OKA BERDEA-3: HARREMAN BERDINZALEAK**

Idatzi zure izena:

Oka Berdeak berdintasunerantz egin beharreko bidea eta heziketa irudikatzen du. HARREMAN BERDINZALEAK eraikitzeke egin daitezkeen ikasketa eta lortu daitezkeen trebetasunak islatzen ditu: zainketa, aniztasuna eta berdintasuna, emakume eta gizonen Giza Eskubideak kontuan harturik.

1. - **Giza Eskubideak DENONTZAT** adierazten duten esaldietan **EGIA** idatzi:

	Etxea etxeko guztien ardura eta erantzukizuna da	
	Pertsonen zainketa emakume eta gizonen erantzukizuna da	
	Musika-tresna batzuk bakarrik mutilentzat dira	
	Neskek eta mutilek jostailu berberak erabil ditzakete	
	Informatika ikastea baliotsua da emakume eta gizonentzat	
	Emakumeek festetan lasai parte hartzeko eskubidea dute	
	Gizonek etxeko ospakizunak prestatzen ikas dezakete	
	Etxean zein lanean, diru-kontuak gizonen lanak dira	
	Mutil batzuek panpinekin jolastea gustukoa dute	
	Neska eta mutil bakoitza bakarra eta errepika ezina da	

2. - Idatzi **BAI** esaldiak **HARREMAN BERDINZALEA** eta Oka Berdea adierazten duenean:

	HARREMAN BERDINZALEA ADIERAZTEN DU? OKA BERDEA ADIERAZTEN DU?	Bai/Ez
	Mutilak eta gizonak ere etxeaz arduratzen dira eta etxeko lanak egiten dituzte	
	Emakumeek zein gizonak lanpostu parekidea eta lan baldintza berberak dituzte	
	Gizonak kalean eta lanean dira nagusi eta protagonistak, emakumeak etxean	
	Denok zaintzen ikasi dugu, bakoitzak gure burua eta bizikideak zaindu ahal izateko	
	Nork bere bizitza egiteko baliabideak ditu eta nahi duenarekin partekatzeko eskubidea	
	Denok hiritar osoak gara, denok berdin tratatuak gizartearen esparru guztietan	

→ Giza Eskubideek berdintasuna eguneroko bizitzan garatu eta zehazten dute.